



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2024ko URRIAREN 15EAN EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

2024ko urriaren 15ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Ana Agesta Echecolonea
Nagore Arizeta Garmendia
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

IDAZKARIA:  Ane Gomez Urteaga
.../...

- 1. 2025 urterako udal Ordenantza Fiskalak eta udal zerbitzuengatiko tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea.**
- 2. Alkizako 02 poligonoko 063b partzelaren jabearekin egindako hitzarmenaren onespena.**
- 3. Alkizako Erretore etxeko teilatuaren zaharberritze lanak bukatu ondoren, aurkeztutako fakturen onespena eta ordainketa burutzeko aginduaren onespena.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

2025 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA

Ikusirik 2025 ekitaldirako Ordenantza Fiskal eta Tasa eta Prezio Publikoen udal ordenantzak eguneratzeko eta aldatzeko, egindako ondorengo proposamena:

2025 URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK.



ALKIZAKO UDALA

ALDAKETA PROPOSAMENAK

1. ZERGAK

1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

2024 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK:

- Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,22.
- Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,2.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,99.

TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2024 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK

- Familia Ugariak (3 ume edo gehiago) % 30.
- Eguzki aprobetxamendu termiko sistemak %25.

HOBARI HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2. JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

2024 URTEAN INDARREAN EGON DEN KUOTA:

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntza-koefizientea %1,72 izan da

KUOTA MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

Ez dago hobaririk onartuta.



ALKIZAKO UDALA

3. TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

2024 URTEAN INDARREAN EGON DEN KOEFIZIENTEA:

Gaur egun % 1,80 koefizientea aplikatzen da

KOEFIZIENTEA %1.85era IGOTZEA PROPOSATZEN DA

2024 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK

- Bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra indarrean dagoen legeriaren arabera-maila orokorreko edo maila bereziko familia ugariako kidea bada, hurrenez hurren: % 50.

-Zerga-kuotaren %50eko hobaria, ibilgailu hibridoetan.

-Hobari hau %95ekoa izango da, motor osoa elektrikoa duten ibilgailuen kasuan.

HOBARI HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

Ibilgailu mota eta potentzia	2024	Koefizientea	2025 Proposamena
A) Turismoak:			
9 zaldi fiskal bitartekoak	33,10	%1,85	34,02
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak	66,20	%1,85	68,04
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak	110,34	%1,85	113,41
14 - 15,99 zaldi f..bitartekoak	154,48	%1,85	158,77
16 - 19,99 zaldi f. bitartekoak	198,60	%1,85	204,13
20 zaldi fiskaletik gorakoak	242,75	%1,85	249,50
B) Autobusak:			
21 plaza bitartekoak	149,94	%1,85	154,11
21 - 50 plaza bitartekoak	213,55	%1,85	219,48
50 plazatik gorakoak	266,94	%1,85	274,36
C) Kamioiak:			
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	76,10	%1,85	78,22



ALKIZAKO UDALA

1.000 - 2.999 kg. bitarteko	149,94	%1,85	154,11
2.999 - 9.999 kg. Bitarteko	213,55	%1,85	219,48
9.999 kg-tik gorako	266,94	%1,85	274,36
D)Traktoreak:			
16 zaldi fiskal bitartekoak	31,81	%1,85	32,69
16 – 25 zaldi f. bitartekoak	49,99	%1,85	51,37
25 zaldi fiskaletik gorakoak	149,94	%1,85	154,11
E)Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak:			
750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria	31,81	%1,85	32,69
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.	49,99	%1,85	51,37
2.999 kg-tik gorako karga e.	149,94	%1,85	154,11
F)Gainerako ibilgailuak:			
Ziklomotoreak	8,12	%1,85	8,34
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	8,12	%1,85	8,34
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek	13,90	%1,85	14,28
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek	27,81	%1,85	28,58
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek	55,62	%1,85	57,17
Motozikletak 1.000 cc-tik gora	111,22	%1,85	114,31

4.ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

ONDORENGO HOBARIAK APLIKATZEN DIRA:

Ondorengo hobaria mantentzea proposatzen da:

1. %50-eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.



ALKIZAKO UDALA

-Mugikortasun baremoan, gutxienez 7 puntu izatea

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duen pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo berezita aurkeztea helburu duten obren zatian.

2. Abelgorrientzako estabulazio berriak eraikitzeak eta baita ere Udal Planeamenduko katalogoan sartutako eraikuntzak berritzeko eta birgaitzeko obrak, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren txosten baimenean bildutako baldintzak garatuz babestuko diren elementu berezietan egin daitezkeen jarduerak helburu dutenak. Zerga kuotaren % 95eko hoberia izango dute.

2024 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

a) Nekazaritza-Abeltzantzako esplotazio munduari lotutako ekitaldi, eraikuntza, obra benetako kostearen % 2,50. Onuradun izateko nekazaritza ustia lekuen erroldatze agiria aurkeztu beharko du.

b) Babes Ofizialeko etxebizitzak. Benetako kostuaren : %2,5

c)Besteak: %5

TIPOAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

5. HIRILURREN BALIOEN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

2024. URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

Sortu den aldia: _____

Koefizientea _____



ALKIZAKO UDALA

Urtebete baino gutxiago	0,15
Urte 1	0,15
Urte 2	0,14
Urte 3	0,14
Urte 4	0,16
Urte 5	0,18
Urte 6	0,19
Urte 7	0,20
Urte 8	0,19
Urte 9	0,15
Urte 10	0,12
Urte 11	0,10
Urte 12	0,09
Urte 13	0,09
Urte 14	0,09
Urte 15	0,09
Urte 16	0,10
Urte 17	0,13
Urte 18	0,17
Urte 19	0,23
20 urte edo gehiago	0,40

KARGA TASA:

Karga tasa bakarria izango da:

Zerga-oinarriari aplikatuko zaion Karga-tasa ehuneko hamabost (%15) izango da

FORU ALDUNDIAK EZARRITAKO TARIFA MAXIMOAK APLIKATUKO DIRA



ALKIZAKO UDALA

2. TASAK

1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

2024 URTEAN INDARREAN DAUDEN TARIFAK

2.1.1. UR-HORNIDURAREN ZERBITZUA:

UR HORNIKETA	2024	2025
1.1. Etxez-etxeko ur hornidura		
-Gutxieneko 40m3, sei hilabetea	17,60€	18,04€
-Sei hilabeteko 40 m3 gutxienekotik aurrera	0,69€/m3 bakoitza	0,71€/m3 bakoitza
-Nekazal ustiategiak: UTA	0,4€/m3 bakoitza	0,41/m3 bakoitza
1.2. Udalerritik kanpo kokaturiko eraikinetako ur hornidura:		
- M3 bakoitza	1,06€	1,09€
1.3.- Mantentze kuota, sei hilabeteko	20,00€	20,00€
1.4.- Hondakinen isurketen kuota (Plazako auzoa)	40€/sei hilabete	45€/sei hilabete
1.5.- Ez ohiko erabilera	50 euro	50 euro
Hobariak: Gizarte ongizateak proposatuak	Ikus I. eranskina	Ikus I. eranskina

TASA HAU IGOTZEA PROPOSATZEN DA



ALKIZAKO UDALA

2.1.2. ZABOR BILKETA ZERBITZUA:

2024 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

ZABORRAK	2024	2025
1.1. Etxez etxeko bilketa, hileko	17,60€	17,60€
1.2. Industria, komertzio eta taberna bilketa, hileko	31,90€	31,90€
Hobariak: Gizarte ongizateak proposatuak	Ikus I. eranskina	Ikus I. eranskina

TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2.1.3. DOKUMENTU ADMINISTRATIBOEN IGORPENA

	2025
➤ Animali arriskutsuen inskripzioa	30,00€



ALKIZAKO UDALA

➤ Hirigintza kontsultak	70,00€
➤ Segregazio baimenak 5 partzela arte	75,00€
➤ Segregazio baimenak 6 partzelatik gora	150,00€
➤ Lehen erabilera baimenak	100,00€
➤ Lur mugimendu baimenak	0,40€/m3 bakoitza
➤ 60.000 € baino gutxiagoko aurrekontua duten obretako lizentzien izapidetzea	55,00€
➤ 60.000 € baino gehiagoko aurrekontua duten obretako lizentzien izapidetzea	75,00€
➤ Iharduera baimenak:	
- Klasifikatutako jarduera	150,00€
- Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa	80,00€
➤ Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena	Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren % 200

TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2.1.4.DON JUANENAKO KIROL GELAREN ERABILPENA:

	2025
➤ Don Juanena etxeko kirol gela: urteko bazkidetza	60,00€
➤ Don Juanena etxeko kirol gela: hiru hileko bazkidetza	20,00€
➤ Don Juanena etxeko kirol gela: hileko bazkidetza	10,00€
➤ Don Juanena etxeko kirol gela: eguneko tasa	2,00€
➤ Don Juanena etxeko kirol gela: Federatuak eta jubilatuenak	Dohainik



ALKIZAKO UDALA

TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2.1.5.FAGUS INTERPRETAZIO ZENTRORA BISITAK:

	2025
➤ ZENTRORA ETA ALKIZAKO BESTE MONUMENTUETARA BISITA GIDATUAK + Ibilbidea	5,00€/ Pertsonako:12 urtetik gorakoentzat
➤ ZENTRORA ETA ALKIZAKO BESTE MONUMENTUETARA BISITA GIDATUAK + Ibilbidea	3,00€ / pertsonako: ikastetxeak eta kultur elkarteak (10etik gorako taldeak)
➤ ZENTRORA BISITA GIDATUAK + Ibilbidea	Alkizarrentzat dohainik
➤ Antolatutako ibilbideak	5,00€/ Pertsonako:12 urtetik gorakoentzat

- "ZENTRORA ETA ALKIZAKO MONUMENTUETARA BISITA + IBILBIDEA" SAIOAREN TARIFA, IKASTETXE ETA KULTUR ELKARTEETAKO 10etik GORAKO TALDEENTZAT, PERTSONAKO 3€koa IZATEA PROPOSATZEN DA.
-ANTOLATUTAKO IBILBIDEEN TARIFA 6€tik 5€ra JAISTEA PROPOSATZEN DA.
-GAINERAKO TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA.

2.1.6. BUZOIETAKO GILTZAREN KOPIA ETA ZERRAILA ALDATZEA: 10€

TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2.1.7. HILERRIKO ZERBITZUENGATIK TASA:

	2025
➤ OHIKO NITXOAK Ehorzketa eta 15 urteko kontzesioa	250€ (Marmola eta grabaketa familiaren kontura. Marmolaren erreferentzia udalak finkatuko du)



ALKIZAKO UDALA

➤ KOLUNBARIO NITXO TXIKIAK Ehorzketa eta 15 urteko kontzesioa	250€(Marmola eta grabaketa familiaren kontura. Marmolaren erreferentzia udalak finkatuko du)
➤ GORPUTZAK ATERATZEA Borondatezkoa edo lurretik	250,00€
* Lurperatzea edo hezurak atzeratzea kanpoko enpresa batek egiten badu, hauek fakturatutako kostua ordaindu beharko da.	

TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2.1.8. ALKIZAKO ERRETORE ETXEKO GELA DESBERDINEN ERABILPENA

	2025
➤ 4 laguneko gelaren erabilpena	Egunean 40 euro Astean 120 euro
➤ 16 laguneko gelaren erabilpena	Egunean 128 euro Astean 600 euro
➤ Gela guztien erabilpena	Egunean 250 euro Astean 1.000 euro

2.1.9. IKASTAROAK

	2025
➤ Pilates	35 euro



ALKIZAKO UDALA

➤ Trikitixa	45 euro
➤ Panderoa	33 euro
➤ Yoga helduentzat	Jubilatuak 25 euro Ez-jubilatuak 40 euro

TARIFA HAUEK APLIKATZEA PROPOSATZEN DA

2.UDAL BIDE PUBLIKOEN LURZORUAN, ZORUPEAN EDO HEGALDURAN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAK EGITEAGATIKO TASA

2.1.UDAL KALEETAKO ZOLUA, HEGALKINA ETA LURRAZPIA PRIBATIBOKI ERABILTZEA EDO BEREZIKI APROBETXATZEA, HORNIDURA ZERBITZUA USTIATZEKO ENPRESEN ALDE

Udal kaleetako zolua, hegalkina eta lurrazpia hornidura zerbitzua ustiatzeko enpresen alde pribatiboki erabiltzeari edo bereziki aprobetxatzeari dagokion prezioa, zerbitzu horiek gehientsuenengan edo biztanlegoaren zati garrantzitsuarengan eragina dutenean, enpresa horiek udalerrian urtero lotzen duten fakturazioko diru sarrera gordinen %1,5ekoa izango da.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2024ko urriaren 3an egindako txostena, zeinetatik ondorioztatu daitekeen aipaturiko proposamenak araubidearekin bat datozela.

Gaia azterturik Udalbatzak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Aipaturiko proposamena akordioa bihurtzea eta beraz, azaldutako baldintza beretan onestea.

BIGARRENA.- Aurreko puntuak aipatzen dituen akordioak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, ondorioztatu daitezken erreklamazioak edo oharren efektuetarako. Horretarako dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.



ALKIZAKO UDALA

HIRUGARRENA.- Hartutako akordioak eta Ordenantzen eta beraien GEHIGARRIEN aldaketak behin-betikoak bihurtuko dira, beste akordio berriren beharrik gabe, informaziorako arauzko epea pasa ondoren inolako erreklamaziorik edo oharrik egin ez balitz. Beraz, 2025 urteko urtarrilaren 1ean ipiniko lirateke indarrean Ordenantza Fiskal eta Tasa Publikoen Ordenantza berriak.

LAUGARRENA.- 2025 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

2025 EKITALDIRAKO ZERGA EGUTEGIA

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2025 urteko otsailaren 1etik otsailaren 28ra

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

- 2025 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 2ra arte.

3.- UR TASA:

1. sei hilabetea: 2025 urteko irailaren 1etik azaroaren 3ra bitartean.
2. sei hilabetea: 2026 urteko otsailaren 2tik apirilaren 2ra bitartean.

4.- ZABORREN TASA:

1. seihilabetea: 2025 urteko uztailaren 1etik irailaren 1era bitartean.
2. seihilabetea: 2026 urteko urtarrilaren 2tik martxoaren 2ra bitartean.

2025EKO UR ETA ZABORREN TASEN HOBARIEN TAULA/TABLA PARA EL EJERCICIO 2025 DE BONIFICACION DE TASAS DE AGUAS Y BASURAS

Behartsuenei hobariak ematerakoan, bi ezaugarri hartzen ditugu kontuan/ A la hora de dar ayudas a los necesitados se tienen en cuenta dos conceptos:

1. Familiaren kide kopurua, hots, etxean bizi diren pertsona kopurua (ezkerreko zutabea)/Número de miembros de la unidad familiar (tabla de la izquierda)



ALKIZAKO UDALA

2. Familia osatzen duten kide guztien hileko dirusarrerak, indarrean dagoen Lanbidearteko gutxieneko soldata, oinarri hartzen delarik. Ingresos económicos mensuales de todos los miembros de la Unidad Familiar, tomando como base, el Salario Mínimo interprofesional vigente.

L.G.S / S.M.I Urtero finkatzen du Madrilgo Gobernuak

Hileroko soldata maila, Profesioarteko Gutxieneko Soldatarekin konparatuz. **Nivel de sueldo, Comparando con el SALARIO MINIMO INTERPROFESIONAL**

	LGS edo < SMI .o <	LGS + % 10 SMI.+% 10	LGS +% 20 SMI + % 20	LGS +% 30 SMI + % 30	LGS +% 40 SMI + % 40	LGS + % 50 SMI + % 50	LGS + % 60 SMI + % 60
1-2	%100	%75	%50	%25	-----	-----	-----
3	%100	%100	%75	%50	%25	-----	-----
4	%100	%100	%100	%75	%50	%25	-----
5	%100	%100	%100	%100	%75	%50	%25
6	%100	%100	%100	%100	%100	%75	%50
7	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%75
8 edo +	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

- D.B.E EDO G.L.L KOBURATU ETA KRITERIO HAUEN BARRUAN EZ DIREN KASUAK BANAKA AZTERTUKO DIRA/- Si cobra R.G.I. O AES, los no contemplados dentro de estas categorías se estudiarán caso por caso.
- KONTSUMO MIN = 60M³ (semestral) / CONSUMO MINIMO 60M³ (seis meses) ONDASUN BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN PERTSONEK EZ DUTE HOBARIRIK JASOKO/LAS PERSONAS PROPIETARIAS DE MAS DE UN BIEN NO COBRARÁN ESTAS AYUDAS.

L.G.S. :Lanbidearteko gutxieneko soldata; S.M.I.: Salario minimo interprofesional.

D.B.E.: Dirusarrerak bermatzeko errenta; R.G.I.: Renta de garantia de ingresos
G.L.L.: Gizarte larriunetarako laguntzaK; A.E.S.: Ayudas

BIGARRENGO PUNTUA

ALKIZAKO 02 POLIGONOKO 063B PARTZELAREN JABEAREKIN EGINDAKO HITZARMENAREN ONESPENA.



ALKIZAKO UDALA

Ikusita Alkizako udalak Alkizako 02 poligonoko 063b partzelaren jabearekin hitzarmen bat sinatu nahi duela, horretarako ondorengo zirriborroa prestatu da:

ALKIZAKO 02 POLIGONOKO 063b PARTZELAREN JABEAREKIN HITZARMENA

Alkizan, 2024ko

BILDURIK

Batetik, INAKI XABIER IRAZABALBEITIA FERNANDEZ Jauna, N.A.N. zenbakia 15.922.304-W duena, ALKIZAKO alkate jauna, ALKIZA-ko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Bestetik, M.L.O.U. andrea, N.A.N. zenbakia 15962916L duena, jakinerazpenetako Aritzategi Garaikoa baserrian helbidea duenak, Alkizako 02 poligonoko 063b lursailaren jabea izanik, ekitaldi honetarako bere izenean dihardu.

Esku-hartzaileek, hitzarmen honetarako erabateko gaitasuna aitortzen diete elkarri, eta ondorio horietarako:

ADIERAZTEN DUTE:

- I. Alkizako Udalak Hernialdeko udalarekin eta Tolosaldea Garatzenekin elkarlanean 'Kutsidazu bidea Ixabel' ibilbidea atondu behar du. Proiektu hau Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Ezohiko Programaren (HJTP) 2022rako dirulaguntzen (Next Generation) ezohiko deialdiaren bidez finantzatzen da.
- II. Proiektu honen babesean Arraitza baserriko 02 poligonoko 063b lursailaren 30 m² inguruko lur-eremu batean 'Kutsidazu bidea Ixabel' ibilbidearen geltoki bat antolatu nahi da. Aipatutako eremua (Geltokia hemendik aurrera) Alkiza-Hernialde herri-bidearen ondoan dago koordinatu hauetan: 43°10'00.3"N 2°05'57.4"W.
- III. Geltokiak elementu hauek izango ditu: iturria, eserlekua eta informazio-elementuak. Arraitza baserrira ematen duen aldean heskaiz hornituko da.
- IV. M.L.O.U. andereak II. Adierazpenean zerrendatzen den lana bere jabetzakoa den lursailaren aipatutako lur-eremuan egiteko adostasuna azaltzen du.
- V. Proposatutako helburuak hobeki lortzeko, parte hartzen duten aldeek HITZARMEN hau sinatzea erabaki dutela, klausula hauei jarraiki:



ALKIZAKO UDALA

XEDAPENAK:

LEHENA: Alkizako Udalak konpromisoa hartzen du geltokia egoki eta txukun irauteko beharrezkoak diren lanak burutuko dituela hitzarmenak irauten duen bitartean.

BIGARRENA: Alkizako Udalak konpromisoa hartzen du III. adierazpenean aipatutako elementuetan aldaketarik egin beharko balitz, jabegoaren adostasuna eskatuko lukeela.

HIRUGARRENA: Hitzarmena bukatutakoan Alkizako udalak geltokiaren lur-eremua leheneratzeko ardura hartzen du.

LAUGARRENA: M.L.O.U. andereak baimena ematen du 02 poligonoko 063b lursailean III. adierazpenean atalean zerrendatzen diren lanak egiteko eta aipatzen den lur-eremua Alkizako Udalari erabilpena lagatzeko.

BOSTGARRENA: Hitzarmenaren iraupena 10 urtekoa izango da eta beste 10 urtez luzatuko da parteetako batek iraugitze-epea baino 3 hilabete lehenago luzapena ukatzen ez badu.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honen izaera administratiboa izango da, eta hitzarmen horretatik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Eta ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmen hau sinatu dute, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udalaren eta M.L.O.U. andrearen arteko hitzarmena onestea, non adosten den, poligono 2, 063b lursailean "Kutsaidazu bidea Ixabel" ibilbidearen geltoki bat atontzeko baimena ematen den.

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia alkate jauna ahalmenu, aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENGO PUNTUA

ALKIZAKO ERRETORE ETXEKO TEILATUAREN ZAHARBERRITZE



ALKIZAKO UDALA

LANAK BUKATU ONDOREN, AURKEZTUTAKO FAKTUREN ONESPENA ETA ORDAINKETA BURUTZEKO AGINDUAREN ONESPENA.

Ikusita, 2023ko irailaren 29an Alkate-lahendakariak Eba Erkizia Brion arkitektuari Alkizako Erretore Etxean, 3º fasearen konponketa lanen azterketa eta zuzendaritza lanak esleitu zizkiola.

Ikusita 2024ko uztailaren 16an egindako ohiko udalbatzarrean, Alkizako Erretoretzeko eraikinaren teilatuaren eraberritze lanak, Tejas Garmendia enpresari esleitu zizkiola.

Ikusita lanak bukatu direla eta ondorioz Tejas Garmendia enpresak 76.656,53 eurotako (BEZ barne) faktura eta Eba Erkizia arkitektuak 1.883,77 eurotako faktura (BEZ barne) aurkeztu dituztela Udaletxe honetan.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 76.656,53 eurotako faktura onestea eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, 682.920.00.01 kontu sailaren kargura.

BIGARRENA: 2.150,34 eurotako faktura onestea eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, 682.920.00.01 kontu sailaren kargura.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19:40etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

